



ERRIGORA

NAFARROAREKIN, EUSKARAREKIN BAT EGITEKO GARAIA DA

Errigora ekimen herritarrak, “Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka”, udazkeneko produktu salmenta kanpaina, jarri du abian.

Ekimen honen bidez bildutako dirua, salmentaren %25a, Nafarroako hegoalde eta erdialdeko euskalgintzara bideratuko da: Lodosa, Viana eta Tuterako ikastolen biziraupenera, Erriberako AEKra eta D eredia Nafarroako sare publikoan hedatzeko ekimenetara.



Horrez gain eremu horretakoak propio diren produktuen salmenta bultzatzen du ekimenak, auzalana baliatuta Euskal Herri osoan zehar banaketa ahalbidetuz.

*Egizu erosketa on-line urriaren 22tik azaroaren 10era; **Laudio Ikastola** banaketa gunea da, eta bertora bila etortzeko abisua luzatuko dizugu azaroaren 28tik aurrera.*

eskaera egin 

10 URTE BETE-BETE SASKIA

Originala, biribila eta biderkatzailea. 23 ekoizleren 9 produktu ekologiko eta konbentzional elkarrekin.

5 produktu amankomunak -zainzuriak, piperrak, orburuak, gozo bat eta ardoa- eta beste 4 produktuak gainontzeko ohiko produktuekin osatuta.

**EGIZU EROSKETA ON-LINE URRIAREN 22TIK
AZAROAREN 10ERA ETA LAUDIO IKASTOLAN JASO**

BERDINTASUN FOROA

*Abian da Ikastolako Berdintasun Topagunea. Ikasturte honetako lehen **bilera urriaren 26an, osteguna, 16:30ean idazkaritzako bilera gelan.***

Berdintasun topagunea hezkuntza komunitatea, ikasle, guraso eta langileak, Ikastolako Hezkidetza plana sortzeko lan taldea da.

Betiko moduan bilera irekia da eta Ikastolako kide guztiok bertan parte hartzeko aukera dugu.